

Enpresagintzako argazki lehiaketa.

2017/11/06

Enpresagintza Fakultateko Euskara Batzordeak, Euskararen Nazioarteko Egunerako argazki lehiaketa antolatu du. Irabazleen artean, aukeratu da 2018 egutegiako argazkia. Lehiaketa arautuko duten oinarriak honako hauek dira:

OINARRIAK

- Baldintza teknikoak:** 300 puntuko kalitatea (pixelak); "jpg." formatua; norabide horizontalean ateratako argazkia. Hitza argazkian integratuko da.
- Helburua:** Euskalkiak ezagutzera ematea. Zure euskalkiko hitz edo esaera labur berezi bat aukeratu eta dagokion argazkia atera. Hitz edo esaera laburra argazkian azaltzea beharrezkoa da.
- Gaia:** gaia librea da. Bete behar den baldintza bakarra, aukeratutako hitzarekin koherentea den argazkia aukeratzea da. Dena dela, ez dira onartuko hitz sexista, arrazista edo homofoborik; orohar, giza duintasunaren aurkako edozein hitz.
- Kontuan hartuko dira:** argazkiaren kalitatea, hitza eta argazkiaren arteko lotura eta integrazio maila eta originaltasuna.
- Parte hartzaileak:** Enpresagintza Fakultateko edozein ikasle, irakasle edo langilek parte hartu dezake.
- Epea:** Jatorrizko lanak abenduaren 1erako bidali behar dira (eguerdiko 12ak). Hauetariko edozein tresna erabili daiteke:
 - Emaillez: euskarabatzordea.enpresagintza@mondragon.edu.
 - Twitter: @enpresagintza -ko kontuaren aipua egin eta #gurehitzak_mu traola erabiliz.
 - Facebook: Enpresagintzako kontuaren aipua egin eta #gurehitzak_mu traola erabiliz.
- Epaimahaia:** Jasotzen diren argazki guztien artean baldintzak betetzen dituztenak aukeratu ditu Euskara Batzordeak. Abenduaren 4an ikusgai egongo dira. Bozketa online egingo da, kolektibo guztiari helaraziko zaion lotura baten bitartez. Boto gehien jasotzen dituen argazkiak irabaziko du lehiaketa. Bozketan edozein ikasle, irakasle edo langilek parte hartu dezake. Irabazlearen izena abenduaren 5an iragarriko da.
- Egutegia:** egutegian agertuko den argazkiaren inguruko azken erabakia epaimahaiarena izango da.
- Sariak:** • 1º saria: Errigora elkarteko produktuak (Erriberako produktuak eta euskara sustatzeko elkarteak) • 2º saria: 50€ bonoa Elkar liburudendan. • 3º saria: MU merchandisinga (sudadera, motxila, bazkaltzeko boltsa, ...)
- Lan guztiak Enpresagintzako Euskara Batzordearen esku geratuko dira, eta osorik zein zatika argitaratzeko aukera izango du.



Argazki lehiaketa
EUSKALKIAK

Argazki lehiaketa:
Aukeratu ezazu euskalkietako hitz edo esaldi bat eta horrekin zerikusia duen argazkia atera. (Esaldia hitza argazkian txertatu behar da)

Argazki irabazlea 2018ko egutegian agertuko da.

Noizko?
Abenduak 1 (12:00) baino lehen.

Baldintza teknikoak:
300 pixel – jpg. formatua – horizontalean

Sariak:
1. Errigora elkarteko produktuak
2. 50€ bonoa Elkar liburudendan
3. MU Merchandisinga

Partekatuz
EMAILAZ: euskarabatzordea.enpresagintza@mondragon.edu
TWITTER: @enpresagintza -ko kontuaren aipua egin eta #gurehitzak_mu traola erabiliz
FACEBOOK: enpresagintzako kontuaren aipua egin eta #gurehitzak_mu traola erabiliz